

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntza deialdiaren oinarriak

BDNS(Identif.):921353

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/921353>).

Deialdi honek diru-laguntzak lehiaketa bidez ematea du helburu, udalerrian euskararen sustapenean laguntzeko xedez, hain zuzen ere, baldin eta honako eraren batean egiten badira:

Euskara ikasteko bekak (2025eko urriaren 1aren eta 2026ko irailaren 30era artean egindako ikastaroak).

Deialdi hau ondokoek arautuko dute: oinarri hauek, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, eta Aguraingo Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen kudeaketa ondoko oinarrien arabera egingo da: publikitate, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza, bai eta zehaztutako helburuak betetzean eraginkortasuna eta baliabide publikoen esleipen eta erabilera efizientzia ere.

1. artikulua. Deialdiaren xedea

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen xedea euskara ikasteko bekak ematea da.

2. artikulua. Pertsona onuradunak

1. Ondokoak izango dira diru-laguntzen onuradun:

Ikastaroa bitartean udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak eta udalak kontratatutako kanpoko zerbitzuetako langileak.

2. Onuradunen betekizunak:

Aguraingo udalerrian erroldatuta egotea ikasturtea hasten denean eta amaitzen den arte hala mantentzea (Udalak kontratatutako kanpoko zerbitzuetako langileak izan ezik).

16 urte eduki behar dituzte inskripzio egunean.

Prestakuntza ikastaroak 2025eko urriaren 1aren eta 2026ko irailaren 30aren artean egitea.

Ikastaroan eman diren orduen, gutxienez, ehuneko 80 jaso direla bermatzea edo ikastaro hori izena emandako ikastetxean, eta hantxe baino ez, gainditu dela egiaztatzea.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren edo ikastaroren batean edo Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ikastaroren batean matrikulatuta izatea.

Barnetegiren baten ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Dena den, prestakuntzaren kostuak baino ez dira diruz lagunduko. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

Hautatutako ikastaroa helduen euskalduntze edo alfabetatzeko curriculumaren proiektu oso baten parekoa izango da gutxienez.

Euskara ikasteko bestelako diru-laguntzak eskatzeko aukera izanez gero, esaterako, HABEk emandakoak, nahitaez eskatu beharko ditu onuradunak. Udalak aukera hori baliatu duten ala ez aztertze beharrezko dokumentazioa eska dakioke onuradunari.

3. Honako hauek ez dira onuradun izango:

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, 13.2 eta 13.3 artikuluetan adierazitako inguruabarretako batean daudenak.

3. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Honakoa da 2026. urterako aurrekontu zuzkidura:

Euskara beketarako diru-laguntzak: 10.000,00 euro (335.480.001) partidari dagozkionak.

Diru-laguntzek borondatezko izaera izango dute eta ezin izango da argudiatu alde aurretik jaso izana.

Udalaren diru-laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketen beste batzuekin. Dena dela, udalaren diru-laguntzaren zenbatekoak, beste erakunde batzuen beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin izango du egindako jardueraren defizit kostua gainditu.

4. artikulua. Zenbatekoa

a) 2025-26 ikasturtean langabezian egonez gero, eskatzailek matrikula osoa jasoko du, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko.

b) Langabezian ez dauden eskatzaileek matrikularen ehuneko 50a jasoko dute, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko.

c) Kirol klubetako entrenatzaile eta zuzendaritzako kideek, Agurainen erroldaturik egonez gero, matrikula osoa jasoko dute, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko.

d) Eskatzaileek ikasturtearen iraupenaren ehuneko 40 baino gehiago lan eginez gero, laguntza ehuneko 50ekoa izango da, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko. ehuneko 40 baino gutxiago lan eginez gero, langabetu moduan hartuko da, eta gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko jasoko dute.

e) Langile bat lanaldi partzialeko kontratua edukiz gero, eta lanaldia ehuneko 40koa (40 ordu astean) baino txikiagoa bada langabetu bezala hartuko da eta matrikula osoa jasoko du, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko. Lanaldia ehuneko 40koa baino handiagoa bada matrikularen ehuneko 50 jasoko du, gehienez 800,00 euro eskatzaile bakoitzeko eta ikasturteko.

f) Eskatzailea ikasketa ofizialak egiten badago 2025-2026 ikasturte osoan eta 26 urte edo gutxiago baditu, laguntzaren zenbatekoa matrikularen ehuneko 100 izango da (gehienez 800,00 euro eskatzaileko eta urteko).

g) Udalak kontratatutako kanpoko zerbitzuetako langileei matrikula osoa emango zaie, gehienez 800,00 euro eskatzaile eta ikasturte bakoitzeko.

h) Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontu-partida agortu ez bada, soberakina matrikularen ehuneko 50 esleitu zitzaizen eskatzaileen artean banatuko da, hainbanaketa baten bidez, partida agortu arte.

i) Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikipena proportzioan ezarriko da eskatzaile guztien artean, ikasturtean zehar langabezi egoeran, ikasten edo udalak kontratatutako kanpo zerbitzuetako langile moduan egon direnen artean izan ezik.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

Eskaera-orria

Ikastegiaren ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak (hasiera- eta amaiera-data, bertaratzeari buruzko datuak, gainditutako maila, matrikularen prezioa) eta matrikularen ordainketaren ziurtagiria adierazten dituenak. Barnetegien kasuan: banakatuta joan beharko dute mantenu- eta ostatu-gastuen irakaskuntza-gastuek.

Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste diru-laguntzarik edo laguntzarik jaso den ala ez. Diru laguntzaren bat lortuz gero, jasotako zenbatekoa adierazi beharko da, baita administrazio emailea ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeako agiria aurkeztu beharko da

26 urtetik azpiko ikasleek: ikasle egoera egiaztatzen duten ikasketa ofizialen matrikularen fotokopia.

Kirol klubetako entrenatzaile eta zuzendaritzako kideek, hori egiaztatzen duen klubaren egiaztapena.

Udalak kontratatutako kanpoko zerbitzuetako langileen kasuan, Udalak kontratatutako zerbitzuetan lan egiten dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.

Eskatzailearen errolda-ziurtagiria, diruz lagundu daitekeen aldia.

Langabezia edo enplegu partzialean dauden pertsonen kasuan, haien lan-egoera egiaztatuko da 2025eko irailaren 30aren ondorengo lan-bizitzaren bidez.

Jasotako edo eskatutako beste diru-laguntza batzuei buruzko informazioa: eskaera, ebazpena... Arestian aipatu bezala, beste dirulaguntzaren bat eskatzeko aukera baldin badu (HABE), nahita nahiezkua izango da aukera hori baliatzea. Udalak aukera hori baliatu duen ala ez egiaztatzeako aukera izango du

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak udalean aurkeztu beharko dira eskaera-inprimakiarekin eta eskatutako dokumentazioarekin batera.

Eskaerak xedatutako guztiak betetzen ez baditu, interesdunei betetzen ez dituztenak betetzeko 10 eguneko epea emango zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68 artikuluekin bat eginez, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Eskaerak 2026ko urriaren 31 bitartean aurkeztu ahal izango dira.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Arlo bakoitzeko zinegotzi ordezkaria izango da organo izapidegilearen lehendakari eta Aguraingo euskara arloan lan egiten duen teknikaria organo horretako kide. Teknikari horrek ofizioz egingo ditu ebazpen proposamena zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeako beharrezko jotzen dituzten jardura guztiak.

Eskaerak aztertuta, behin-behineko ebazpen proposamena egingo da. Ebazpen proposamen hori dagokion irizpen batzordean aztertuko da, irizpena eman dezan, eta, ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie. Azken horiek hamar egun baliadun izango dituzte egoki irizten dutena alegatzeko

Alegatutakoak ebaztitakoan, organo izapidegileak behin betiko ebazpen proposamena egingo du, osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordeari bidaliko dio eta hark aldeko irizpena eman ondoren, Gobernu Batzarrak dirulaguntzak ematea ebaztiko du eta interesdunei behin betiko ebazpena jakinaraziko.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, bai eta jakinarazi haren aurka jarri daitezkeen errekurtsioak ere. Ebazpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluekin bat eginez jakinaraziko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenarena.

Eskaera ebazteko hiru hilabete izango dira, eskaerak aurkezteko azken egunetik aurrera -6. artikuluan xedatzen da egun hori-. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman ez bada, eskaera ez dela onartu esan nahiko du.

Emandako diru-laguntzak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira, pertsona orok jakin dezan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru laguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita diru laguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak eman beharko dituzte, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eska ditzakeenak barne.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izanaren berri ematea organo emaileari.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren ordaindu direla egiaztatzea.

Jasotako laguntzak erabili direla egiaztatzen dituzten agiriak izatea, agiri elektronikoak barne, zeren eta egiaztatutako eta kontrolatuak nahi izan baitaitezke.

Diru-laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Aguraingo Udalarekin izan daitekeen itzulketa edo zehazpen prozesu oro bukatuta izatea.

9. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

Behin betiko ebazpen proposamena jakinarazten zaienetik aurrera hogeita hamar egun igaro baino lehen ordainduko zaie interesdunei diru-laguntza, bestelako diru-laguntzak eskatu dituzten eskatzaileei izan ezik, hauei eskatutako diru-laguntza guztiak ebatzi ondoren, kitapena egin eta dagokien kopurua ordainduko zaie.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak diru-laguntza baliogabetzea ekar dezake. Horrelakoetan, emandako diru-laguntza itzultzeko prozedurari ekingo zaio, Aguraingo Udalaren Diru-laguntza Ordenantzan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, ondokoak hartuko dira kontuan: Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 38/2015 Legeak emandako idazketa), 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, zeinen bidez, 38/2013 Lege Arautegia onartzen den, azaroaren 17koa eta Diru-laguntza Orokorrarena eta Diru-laguntzen Udal Ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Epaitegietan, eta horretarako, bi hilabete izango dira, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, aukeran, berraztertzeke errekurtsioa aurkez daiteke, erabakia hartu duen organoari berari zuzendua, eta horretarako, hilabete izango da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunaren biharamunetik aurrera.

11. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera, eta 2016ko apirilaren 27ko Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien

zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak Aguraingo Udalaren diru-laguntzen fitxategian sartuko dira, hain zuzen ere, Aguraingo Udalaren izaera pertsonaleko fitxategiak sortu eta aldatzeko arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Aguraingo Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Aguraingo Udalari aurkeztutako agirietan emandako datuak egia direla egiaztatzeko, beste erakunde publiko batzuek dituztenekin erkatuz.

Agurain, 2026ko uztailaren 24a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR